



ERTZAINZAK ETA UDALTZAINGOEN OSASUN-LARRIALDIAN APLIKATZEKO IRIZPIDEAK

Data: 2021eko uztailaren 23a

Berrikuspena: 11

SARRERA

Uztailaren 23an argitaratu da *35/2021 DEKRETUA, Lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa.*

Dekretua indarrean dago, 2. eta 3. puntuetan jasotako edukiera-mugak izan ezik, horiek uztailaren 26ko 00:00etan sartuko baitira indarrean.

LEHENDAKARIAREN 35/2021 DEKREUAREN LABURPENA

Atal honetan 35/2021 Dekretuan agertzen diren gaien laburpena jasotzen bada ere, gogorarazten da aldatu ez diren aurreko dekretuetako neurri guztiek indarrean jarraitzen dutela.

NEURRI OROKORRAK ETA PREBENTZIO-NEURRIAK

Maskara aire zabaleko espazioetan erabiltzea nahitaezkoa izango da, pertsonen arteko gutxieneko 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea ezinezkoa bada.

Halaber, **maskara erabiltzeko beharra hedatzen da jendea dabilen** edozein motatako hiriguneetara, hala nola udalerrietako alde zaharretara, merkataritza-guneetara eta dendetara, merkatuetara, azoka txikietara edo ostalaritza-establezimenduak dauden guneetara, bai eta itsasgune eta itsas pasealeku guztietara, haur-parkeetara, espaloietara, oinezkoentzako pasabideetara, plazetara edo jendea biltzen den kaleetara ere.

Ez dago zertan maskara erabili ingurune naturalean, baldin eta ez bada jende-pilaketarik edo bizikide ez diren pertsonetara konkurrentziarik gertatzen.

Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuetan, maskara erabiltzeko betebeharra jateko edo edateko unean bakarrik kentzen da. Bestela, nahitaez erabili behar da une oro, bai barrualdean, bai terrazetan.

Kirol-jardueraren bat egiten denean, maskara ez da nahitaezkoa izango espazio naturaletan, oinezkorik gabeko hiri-ingurune periferikoetan, igerilekuetan, lehiaketa



profesional edo erdi-profesionalean diharduten taldeen entrenamenduetan eta lehiaketetan eta kanpoaldean egiten den jarduera fisiko gogorreko ezohiko uneetan.

Hondartzetan eta igerilekuetan, bainua hartzen ari garen bitartean eta eremu zehatz batean geldirik bagaude, ez da beharrezkoa izango maskara erabiltzea, betiere erabiltzaileen arteko segurtasun-tartea errespetatu badaiteke. Hondartzetan eta igerilekuetan joan-etorriak egiteko eta paseatzeko, maskara erabili beharko da.

Sei urtetik gorakoek nahitaez erabili behar dute maskara adierazitako bidaiarien edozein garraibide erabiltzen dutenean, bidaia hasten denetik amaitzen den arte, legezko salbuespen-kasuetan izan ezik. Ez da exijituko maskara erabiltzea **garraibide pribatuetan**, bidaiariak etxebizitza berean bizi badira. Garraio-profesionalak maskara eraman beharko du zerbitzuan dagoen bitartean, bere lan-eremua ez badago publikotik bereizita gelaxka baten bidez edo mugatuta babes-itxitura baten bidez.

OSASUN PUBLIKOAREN ARLOKO NEURRI ESPEZIFIKOAK JARDUEREN ARABERA

Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduerak

Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduera guztietarako ezarrita dagoen **ixteko muga-ordutegia 01:00 arte** ezartzen da, hargatik eragotzi gabe bakoitzari dagokion ordutegira doitzea, goizago bada, hala agintzen duen ordutegi-arau arrunten bat badago. Irekitzeko ordutegia ohiko arauen arabera izango da.

2021eko uztailaren 26ko 00:00etatik aurrera, jardueretan baimendutako **gehieneko edukiera** ehuneko 35ekoa izango da lokal eta instalazio guztietarako, muga espezifikoren bat aplikatu behar duten lokal eta instalazioetarako izan ezik. Muga hori ez zaie aplikatuko, aldez aurretik eta indarrean dagoen aurreko araudiaren arabera, edukiera handiagoa kontratatuta edo erreserbatuta duten zerbitzuei eta jardueri. Lokal eta instalazio guztiak etengabe aireztatu beharko dira. Garraibideek berariazko araudian baimendutako edukiera osatu ahal izango dute.

2021eko uztailaren 26ko 00:00etatik aurrera, oro har, edozein motatako gizarte-, kultura- edo kirol-ekitalditarako esparruetan gehienez ere **400** pertsona bildu ahal izango dira **barrualdeetan** eta **600** pertsona **kanpoan**. Berariaz:

- 1.600 eta 5.000 lagun arteko edukiera duten esparruetan, gehienez 600 pertsona egon daitezke barruan, eta 800 kanpoan.
- 5.000 lagunetik gorako edukiera duten esparruetan, ez da gehieneko edukieraren % 20 gaindituko. Ahal den guztietan, 1.000 pertsona baino gutxiagoko eremu independenteak ezarriko dira, sarbide eta pasabide independenteeko guneekin.



Muga horiek ez zaizkie aplikatuko, aldez aurretik eta indarrean dagoen aurreko araudiaren arabera, edukiera handiagoa kontratatuta duten ekitaldiei.

- **Aire zabalean egiten diren ekitaldietan**, hiri-inguruneetan nahiz ingurune naturalean izan, jendea jarduera horietara joan ahal izateko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideak errespetatu beharko dituzte antolatzaileek.

Antolatzaile jakin batek –publiko zein pribatu– kontrolatzen ez dituen pertsonen **noizbehinkako edo ustekabeko pilaketak** gertatzen diren **ekitaldi sozialetan**, zorrotz eta nahitaez eutsi beharko zaio pertsonen arteko **1,5 metroko** distantziari, bizikideen kasuan izan ezik, eta gehieneko edukiera zenbatetsi hau errespetatuko da: **pertsona bat, aglomerazioa gertatzen ari den lekuko azalera-espazio konputagarriaren 4 metro koadro bakoitzeko**.

Ostalaritzako lokalak eta jatetxeak, eta antzekoak

Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduen barrualdeetan, edukieraren **ehuneko 35eko muga** ezartzen da, **baita barran edo zutik kontsumitzeko debekua ere**. Zerbitzua antolatzeko, barrualdeetan eta terrazetan, gehienez **sei pertsona** izan daitezke **mahai** edo mahai-talde bakoitzeko, bizikideen kasuan izan ezik. Ezin izango dira bezero gehiago elkartu ez lau lagunentzako mahaietan, ez sei lagunentzako mahaietan ere.

Garraio publikoa

EAEko hiru lurralde historikoetako bakoitza baino eremu txikiagoko **garraio publiko** oro, beranduenez, **02:00etan** irten beharko da.

INTERPRETAZIOAK ETA APLIKATZEKO IRIZPIDEAK

1. Mugikortasun mugarik ba al dago gaueko ordutegian?

Ez, ez dago lurralde-desplazamenduaren murrizketarik, ezta gaueko mugikortasunerako ordutegi-mugarik ere.

Herritarrei beren borondatez mugatzeko eskatuko zaie gaueko mugikortasuna mugatzeari dagokionez 01:00etatik 06:00etara bitarteko ordutegian, bereziki, 14 egunetan COVID intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 150tik gora duten udalerrietan.

2. Zenbat lagun bildu gaitzke?

Oro har, pertsona taldeen kopurua ez dago mugatuta, berariaz ezarritako jardueretarako izan ezik (ostalaritzan mahaiak, kirolak barrualdean, etab.).

Herritarrei beren borondatez mugatzeko eskatuko zaie pertsonen elkarretaratzea mugatzeari dagokionez, gehienez ere sei pertsona batuz, bizikideak kanpo, bereziki,



14 egunetan COVID intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 150tik gora duten udalerrietan.

3. Nahitaezkoa al da ibilgailu pribatu batean maskara erabiltzea pertsona batek baino gehiagok bidaiatzen dutenean?

Bai, bizikidetzaren unitate bereko pertsonak direnean izan ezik.

4. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea jarduera fisikorako eta aire zabaleko kirolerako?

Bai, espazio naturaletan, hiri-inguru periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduta dauden taldeen entrenamendu eta lehiaketan, eta kanpoko jarduera fisiko handiko aparteko uneetan izan ezik.

5. Kontsumitu al daiteke alkoholik bide publikoan?

Ez. Alkohola kontsumitzeko debekuari eutsiko zaio, bai bide publikoan, bai kanpoko esparruetan edo "botiloiak" edo "ez-jaiak" bezalako bileretan.

6. Egon al daiteke 00:00etatik 06:00etara pertsona-taldeetan erabilera publikoko espazioetan?

Ez. Parkeetan, lorategietan, hondartzetan, kirol-guneetan, patinaje-pistetan (skating) edo antzeko aire zabaleko erabilera publikoko espazioetan, bai eta portuei eta itsas pasealekuei dagozkien espazio publikoetan ere, ezin izango da elkarrekin bizi ez diren pertsona-taldeetan edo jende-pilaketetan egon; nolahi ere, espazio horiek igarobide hutsetarako edo beren erabilera profesional edo ekonomikoetarako erabili ahal izango dira.

7. Zer ordutegi baimentzen zaie ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduei, eta joko- eta apustu-lokalei?

06:00etan ireki ahal izango dute, eta establezimendua **01:00etan** itxi beharko dute, pertsonak ateratzea barne eta gehienezko ehuneko 35eko edukierarekin. Dagokion ordutegira doitzea alde batera utzi gabe, baita goizago ere, ordutegien arauketa arrunta aplikagarria denean. Irekitzeko ordutegia ohiko arauen araberakoa izango da.

8. Zer ordutegi dago baimenduta zerbitzuguneetan dauden ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuetarako?

Irekita egon ahal izango dira ezarritako berezko araubidearen arabera, baina **01:00etatik 06:00etara** iragaitzazko erabiltzaileentzat bakarrik.

9. Nola banatzen dira erabiltzaileak ostalaritza-establezimenduetako mahaietan?

Mahai bakoitzeko bezero-taldeek ezin izango dute **6** baino gehiago izan, eta ezingo dira bi mahai edo gehiago elkartu pertsona-kopuru handiagoko talde baterako, bizikideen kasuan izan ezik.



10. Nola kontsumitzen da ostalaritza-establezimenduetan?

Barran edo zutik kontsumitzea debekatuta dago barruan zein kanpoan, eta erabiltzaileek mahaian eserita kontsumitu beharko dute.

Maskara etengabe erabiltzea nahitaezkoa izango da, elikagaiak edo edariak hartzen direnean izan ezik.

11. Zer zerbitzu eman dezakete ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduek?

Aire zabaleko terrazetan zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte, eta barruan **ehuneko 35eko** edukiera mugatua izango dute. Nolanahi ere, mahai desberdinetan eserita dauden pertsonen artean gutxienez metro eta erdiko distantzia mantentzen dela ziurtatu beharko da.

12. Baimenduta dago txokoak eta elkarte gastronomikoak zabaltzea?

Bai, edukieraren **ehuneko 35eko** mugarekin, **09:00etatik 01:00etara**, eta ostalaritzako neurri orokorrak errespetatuz.

13. Gazteen lonjak eta antzekoak irekitzea baimenduta al dago?

Ez, itxita egon beharko dute.

14. Joko- eta apustu-lokalek ireki dezakete?

Bai. Joko- eta apustu-jarduerak banaka egin beharko dira. Pertsonak eserita egon beharko dira. Taldeek ezin izango dute lau pertsona baino gehiago bildu. Jokalarien arteko 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde beharko da. Establezimendu horiek, gehienez ere, **01:00etan** itxi beharko dira, bezeroak ateratzea barne, eta ezingo dira 06:00ak baino lehen ireki jendearentzat.

15. Eta Kannabiako elkarten lokalak irekitzea?

Bai, irekitzea baimentzen da.

16. Zer neurri hartu beharko dira hondartza eta igerilekuetan?

Ezingo da maskararen erabilera eskatu hondartza eta igerilekuetan bainatu bitartean eta espazio jakin batean egon bitartean, baldin eta erabiltzaileen arteko segurtasun-tartea errespetatu badaiteke. Hondartzetan eta igerilekuetan joan-etorrietarako eta ibilaldietarako, maskara erabili beharko da nahitaez.

17. Zein baldintzatan ireki daitezke gaztetxeak?

Gizarte- eta kultura-jarduerak egiteko administrazio-baimena duten lokalek kultura- edo gizarte-jarduerak edo -ekitaldiak egin ahal izango dituzte, eta ezingo dute **01:00ak** baino geroago amaitu. Ezarritako jardueren debekuak eta eteteak errespetatu beharko dira, bai eta **ehuneko 35eko** gehieneko edukiera ere.

Instalazioetan pertsonen arteko segurtasuna mantentzeko beharrezko neurriak ezarri beharko dira, edo, halakorik ezean, babes fisikorako ordezkotako neurriak. Maskara nahitaez erabili behar da.

Dagokien **baimenik ez duten lokalak** gazte-lonjen eta antzekoen kapituluan sartzen dira, eta, beraz, **itxita egongo dira**.



18. Musika- eta ahots-izaerako entsegu eta jarduera kolektibo ez-profesionalak baimentzen al dira?

Bai. Hala ere, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak emandako prebentzio-neurrien protokoloa izan beharko dute.

19. Garraio publikoko zerbitzuak mugatua al du ordutegia?

Bai, **02:00ak** arte izango du irteteko gehienezko ordutegia.

20. Taxiak 02:00etatik aurrera eman dezakete zerbitzua?

Bai. Ez da garraio kolektiboa eta funtsezko jarduerak egiten ditu.

21. Diskotekak eta gaueko aisialdirako establezimenduak ireki daitezke?

Ez, beren jarduera I. eta II. taldeetarako indarrean dagoen araudiaren arabera garatzen badute izan ezik eta dagokion udal-baimena badute.